

Zorionak Zientzia.net, Alicia eta Agustin

informatika

Zientzia.net-ek Sareko Argia saria jaso du *www.zientzia.net* zientzia-atariak 2001. urteko Sareko Argia saria jaso du. *Zientzia.net*-ek urtebete egingo du laster sarean, eta urtebetetze-opari ederra izan da Sareko Argia saria. Baina saria ez da gurea bakarrik, zuena ere bada, *Zientzia.net* erabiltzen duzuenona, zuek gabe gure lanak ez bailuke zentzurik izango. Zorionak guztioi, hortaz!

Zientzia.net-ek izan duen harrera onak eta Sareko Argia sariak adierazten digute zientziaren komunikazioa errotzen ari dela gizartean, eta jardun horretan dihardugunok poztu baino ezin dugu egin.

Zientzia.net-ek Interneteko bidea ireki dio Elhuyarren jardunari, zientziaren dibulgazioak eta euskarak beren txokoa izan dezaten sarean; eta neba-arreba nagusiek txikiei bidea irekitzen dieten moduan, Elhuyarren Interneteko jardunak fruitu berriak emango ditu laster, teknologia berrien aldeko apustuari eutsiz, zientzia eguneroko egiteko.

Eskerrik asko guztioi.

Sit amet, consectetur
adipscing



Leire Cancio eta Eider Carton Sareko Argia sariarekin.

Zorionak Alicia eta Agustin

2002. urte hau aldizkariaren harpidedun guztioi zuen fideltasuna saritzeko asmoarekin hasi dugu Elhuyarren. Badakigu zuek guk bezala, zientzia eta teknologiarekin gozaten duzuela eta, horrexegatik, zaletasun hori zuzenean gozatu ahal izateko bidea eskaini nahi izan dizuegu oraingoan.

Eta naturaz zuzenean gozatzeko... ba al dago asteburua paraje zoragarri batean igarotzea baino aukera hobea? Eta horretaz gainera, itsasoko bizitzaz zerbait ikasteko parada badugu?

Bada hori da, hain zuzen ere, zozketa-tu dugun saria:

Elit,
set di 65 nonumy eiusmod tempori inci-

- Bi lagunentzako asteburua Alkizako Lete landetxean (otordu bat barne)
- Bi sarrera Donostiako acuarium-erako.

Oraingoan sarituak Alicia Garcia de Galdeano Zaldivar getxotarra eta Agustin Olaizola Oñatibia donostiarrak izan dira. ZORIONAK bioi, eta primeran pasa dezazuela.

Beste guztioi, nahiz eta saririk ez bada ere, eskerrak eman nahi dizkizuegu urtez urte gure alboan egoteagatik. ☐



BILINTX
MEGADENDA

DONOSTIAN
Fermin Calbeton, 21 - Tel.: 42 09 30 - 42 00 80 / Faxa: 42 23 63
IRUNEN: Republica Argentina, 4 - Tel.: 62 68 17
TOLOSAN: Arostegieta - Tel.: 67 35 33
BERGARAN: Ibagarai, 14 - Tel.: 76 40 50



XALBADOR
LIBURUBENDA

Comedias, 14
Tel.: 22 41 67 / 22 99 81 - Faxa: 21 10 61
31001 IRUÑEA



URRETXINDORRA
LIBURUBENDA

Iparagirre, 26
Tel.: 424 02 28 / 424 43 96 - Faxa: 424 42 35
48011 BILBO